

ERRENTERRIARRAK JONDEN



JON ETXABE GOÑI

Ezkerretik eskubira: Iñigo Santos, Iñaki Prieto, Edurne Santos, Itziar Prieto

JONDE (Joven Orquesta Nacional de España), Espainiako Orkestra Nazional Gaztea da, espainiako musika ikaslez osatutako orkestra. Partaide izateko urtero, urrian eta maiatzean egiten diren azterketak gainditu behar dira. OARSoko orrialdetara berri pozgarri bat dakargu gaur, alegia, Orkestra Nazional Gazte honetako bost partaide erreterriarrak direla.

Orkestra Nazional Gaztean lehenengoa Carlos Mendez izan zen, egun "Reina Sofía" musika eskolan ikaslea, eta zenbait orkestatan profesional bezala aritzen dena. Berari aintzindari-tza onartzen diote bere urratsak jarraituz, JONDEko partaide aukeratu dituzten beste lau interprete gazte hauek; Itziar Prieto, Iñaki Prieto, Iñigo Santos eta Edurne Santos. Lauak gazteak, apenas bere bizitzako bigarren hamarkada hasten du "zaharrenak", maiatzean aukeratuak izan ziren lehenengo hirua. Edurne, aldiz, iazko urrian aukeratu izan zen, jadanik Ubedako (Jaen) topaketa batean izan da, besteak beste, eta berak damaigu Orkestra Gazte honen berri.

"JONDE, espainiako musika ikaslez osatutako orkestra gazte bat da. Lau aldiz elkartzen gara urtean zehar. Bi topaketek egoitza egonkorra dute Urtarrilekoak Eskorialen eta Irailekoak Santanderren. Udaran, normalean jira bat egiten dugu eta jirarik ez badago hilabeteko topaketa bat, tokatzen den lekuan. Aurten adibidez, Santiago de Compostelan elkartuko gara Xacobeoa dela eta hilabeteko topaketa honetarako. Haseran aipatu ditudan egoitza egonkorretan egiten ditugun topaketek hamabost eguneko iraupena izaten dute, lehenengo hasteran ikastaroak eta bakarkako eskolak hartzen ditugularik eta bigarrenengan orkestra osoak elkar lana egiten dugularik, famili edo sail bakoitza lehenik eta guztiak elkarrekin gero."

Orainarteko JONDEren egoitza ofiziala, Madrilgo Auditorio Nazionelean aurkitzen zen. Etorkizunari begira, egoitza ofizial hau eta beste topaketa egonkor bat Cuencara eraman nahi dute, dena den, aurtengo maiatzeko azterketak Madrilen egin ziren. Epai mahaiean, Edmon Colomer Orkestra Nazional Gazteko zuzendaria, eta azterketa gainditu behar duenak josten duen instrumentuan aditua den irakasle batek osatzen dute. Derrigorrezko obra bat, aukera libreko beste bat eta lehen begiratuan orkestra obra bateko pasarte bat jotzea dira azterketaren edukia.

Itziar Prietok bibolina jotzen du eta aurten beste hogeitama-bi bibolin jolekin lehia gogorrean, aukeratuak izan ziren hama-bietan sartzea lortu zuen. Iñakik, celloan eta Iñigok, biolan beste hamaika jotzaileekin neurtu zituzten abildadeak, instrumentu bakoitzeko lau aukeratueta sartu zirelarik.

Gazteak direla esan dugu, interprete bikainak direla bistan da, baina nondik datorkie lau gazte hauei musikarako zaletasun hau, non du iturburu gazte hauen baitan musikarekiko maitasunak. Galdera honi aho batez erantzun diote, "familian izan dugun musika giroa erabakiorra izan da zalantzarik gabe, lauron esperientzian. Eragina izan duen beste datu bat Erreterian bizi dugun giro musikal eta kulturala izan da. Baina lehenengoak izan du garrantzirik handiena".

"Ni solfeora etxeko giroak bultzata hasi nintzen-dio Edurnek, aita koruko abeslaria zen, anaia solfeora joaten zen eta irakaslea osaba zen. Azken honen esanak jarraituz fagota ikasten hasi nintzen nere buruan bibolina gustoko instrumentu bezala nagusitzen ari zen une berean. Ni neska-koskorra nin-

tzen eta ez nekien zer zen fagota. Istrumentu hau ezagutzeko aukera herrian emandako kontzertu batean izan nuen eta gus-tatu zitzaidan”.

Itziarrek aldiz horrela damaigu bere esperientziaren berri “zazpi urte nituela solfeo ikasi nahi nuen, beti izan bait dugu etxean musika giro ona, aita musika irakaslea da, baina nik orduan ulertzen ez nituen arazo batzu zirela medio ez nuen has-terik izan. Bederatzi urterekin hasi nintekeela esan zidatenean nik ez nuen nahi; orduan, pixkabat “obligatuta”, joaten hasi nintzen. Bibolinerako zaletasuna neri ere kontzertu bat entzun ondoren sortu zitzaidan. Ikasten hasi nintzanean berriz, lehe-nengo lau urteetan nahiko aspertu ondoren, benetan gustoa hartzen hasi nintzaion bibolinerari irakasle partikular bikain bat ezagutu eta lanaren atsegina kutsatu zidanean.”

lñigo izan da bere bidea aurkitzen zailtasun gehien izan di-tuena, “hasieran tronpeta jotzen hasi nintzen eta gaizki iraka-sitako teknika baten ondorioz, eztarria ondatzerainoko proble-mak izan nituen eta utzi beharrean aurkitu nintzen. Inazio Lekuonak orduan, nik hamairu urte nituen, biola hartzeko esan zidan. Erreterian lehen urratsak eman ondoren, Donostiara joan nintzen eta han, hiru urteren buruan irakasleak biola jo-tzeko ez nuela balio esan zidan. Lur jota geratu nintzen. Ingurukoek, lagunak, senitartekoek, ordea, profesional baten-gana joateko gomendioa egin zidaten. Ikusi nuen profesional hori, jo nuen biola bere aurrean eta guztiz alderantzizkoa esan zidan, alegia, gaitasuna nuela musikarako eta lana egin behar nuela. Zorionez bere esanari jarraitu nion”.

Lehen urratsak lñiak honela eman zituen, “urte askotako “pelmada” eman ondoren solfeo ikasketak hasi nituen, eta ait-ak esan zidalako celloa jotzen hasi. Ikasten nuen einean gus-toa hartzen hasi nintzaion, baina aldaketa nabarmena istru-mentuarekiko jarreran, seigarren urtetik aurrera egokitu zitzaid-an irakasle poloniarraren eskutik jasan nuen. Orduan hasi nintzen instrumentua benetan maitatzen eta buru belarri ikas-ten”.

Baina musika bakarrik ez dute egin, beste gazte askok be-zala oinarrizko heziketa eta batxilergoa ikasi dute. Baina gure hezkuntza sistema ez dago musika ikasketak egin nahi ditue-nari lanak errazteko eraturia, alderantziz. Gazte hauek ondo baino hobeto dakite, loari zenbat ordu kendu behar izan dizkio-ten aipatutako bi ikasketa moetak batera egin ahal izateko. Baina aukera egiteko une iritxi zitzaie, bi gauza batera egitea ezinezko bilakatu zitzaie. Aukera bistan da, musikan bu-ru-bellari sartzeara erabaki zutela. Zorioneko erabakia. Hemen ere etxeko giroaren garrantzia azpimarratu nahi izan digute, “beti eskeini izan digute laguntza, baita ikasketekin itota ibili eta erabakiak hartzeko ordua iritxi zitzaigunean. Gurekin bate-ra apustu egin zuten eta irabazi egin dugu. Ezagutu dugu ta-lentua eta musikarako gaitasuna zuen gazte bat baino gehia-go, etxean jarritako traba eta oztopoengaitik aurrera jarraitzerik izan ez duena. Ez da gure kasua izan.”

Gazte hauen bizitza musikalaren berri laburra jakin ondo-ren, itzuli gaitezen JONDEra eta han egingo duten lanera. Arestian esan dugun bezala uztaillean, Santiago de Compostelan izango dira, lau erreteriar hauek hilabete betez, alde zuzenetik etxean ikasitako obrak prestatzen. Baina jakin dezagun nolakoak izaten diren topaketa hauek, zer giro ego-ten den, Edurnek horrela dio “izugarria da, baten esperientzia. Musika egiterakoan, orkestakideak hamabost eguneko biziki-detasun estuan ezagutzeak, asko laguntzen du. Gure arteko komunikazioa handiagoa da eta ondorioz jendearenganako ere bai. Gainera bakarkako klaseetan Europako irakasle eza-gutzeko beta izaten da eta sarritan beraien jatorrizko herrialde-tan ematen dituzten ikastaroetara gonbidatzen zaituzte. Nik fa-goteko bost irakasle ezberdinekin lan egiteko aukera izan dut”.

Baina JONDEko partaide izateak ere baditu beste alde onak ere, adibidez, dirulaguntzak edo beka iritxi ahal izateko bideak zabaltzea eta erreteak. Espainiako Orkestra Nazional Gaztea, Kultura Ministeritzako erakunde autonomo bat da, eta bi urte partaide bezala igaro ondoren, orkestra berak ematen dituen beka eskatzeko aukera dute partaideek. Gainera Kultura Ministeritzak bere aldetik beste dirulaguntzak ere ematen ditu. Atzerrian edo espainian ikasketak sakondu ahal izateko dirua ezinbestekoa denez, JONDEko partaide izatea batzutan derrigorrezko baldintza da beka lortzeko eta bestetan la-gungarri izaten da.

lñigok beste puntu garrantzitsu bat aipatzen du “JONDEn sartzek duen beste abantaila handi bat, orkestra profesiona-letan jotzeko ateak zabaltzen dituela. Partaide izandakoek hori erakutsi dute.”

Esanda geratu den bezala bost dira JONDEko musikoen artean erreteriarak. Irakurleen bati kopuru txikia iruditu da-kioke, horregaitik, informazio gisara esan dezagun, Madril be-zalako hiru miloi eta erdiko hiri erraldoi batetik hamabost bes-terik ez direla, eta azpimarragarria ere bada, gipuzkoar auke-ratu guztietatik heren bat erreteriarakoa izatea. Baina gehien harritu gaituena bost aukeratu hauen artean soka instrumentuek duten nagusitasuna izan da. Behin eta berriz, nekatzeraino, erreteriatzen den leloa da, gure artean soka instrumentisten maila oso kaxkarra dela eta haize familiar dagokionean Balentzianoak dutela nagusitza. Nork ez du hori inoiz entzun. Erreteriar hauen kasuak leloa gezurtatzen duela pentsa dai-teke gazte hauen kasua ikusiz, lau soka instrumentista eta bat haize familiarakoa. Solaskideek honela ikusten dute hauzia “egun sokaren maila ez da txarra gure artean. Iraganeko ten-dentziaren alderantzizkoa da orainoa. Balentziako jotzaileen maila pittin behera doa eta sokarena igotzen ari da. Gainera haize familiar balentziaz kanpora sortu eta ikasitako istrumen-tisten kopurua gero eta handiagoa da.”

Ordu eta erdi luzez izandako solasaldian behin eta berriz mahai gainean jarri duten gaia, erakutsi duten nahia eta lortu nahi duten xedea, gehiago ikasteko egarria izan da”, gehiago ikasi behar dugu, orain arte ikasitakoa sakondu egin behar du-gu, irakasle ezberdinekin trebatu egin behar dugu, eta ahal baldin bada orkestra profesional batean lan egin, esandako guzti hori posible izan dadin.”

Ikasketak sakontzearen bide honetan ilusio berezi bat dute, ezagutu eta bizitzen ari diren esperientzia labur eta sakonean ezagutu duten bezala, beste orkestakideen jaioterrietan egiten diren ikastaroak, aste bete edo hamabost egunekoak, errete-rian egitea, horretarako irakasleak eta ikasleak badituzte, lan egiteko gogoia ere bai, erakundearen laguntza falta dute.

Erreteriar eta musika ardatz izan dituen elkarrizketa honek amaitu beharra du. OARSOk orrialde hauen irakurlea Madalen jaietako giroan murgildua egongo da, Santiagon JONDEkin dauden gazteek ere gogoan izango dituzte herriko jaiak. Aurtengo uztaillean bizitzen ari diren hilabeteko musika festak, jarrai dezala bizitza guztian beraien bihotzetan eta guri erakutsi ziguten ilusioa eta bizipozaren iturri izan dedila musi-ka. Su hori rutinak sekula itzaliko ez duen itxaropenakin, mila esker, bejondeizuela eta zorionak lauroi.